



ALBOAN

www.alboan.org



Iragana aitortu etorkizunera begiratzeko: euskal lankidetzako deszentralizatua instituzionalizazioaren eta krisiaren artean



GARAPENERAKO
LANKIDETZAREN
EUSKAL AGENTZIA
AGENCIA VASCA DE
COOPERACIÓN PARA
EL DESARROLLO



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ALBOAN Lankidetza koadernoak

1. Lankidetza deszentralizatua eztabaidan
2. Eraginkortasunari esanahi berria ematen. Gure proposamena
3. Mundua aldaketa sakonean. Lankidetzaren esparruko erakundeen testuinguruari eta erronkei buruzko hausnarketa
4. Iragana aitortu etorkizunera begiratzeko: euskal lankidetza deszentralizatua instituzionalizazioaren eta krisiaren artean
5. Iragana aitortu etorkizunera begiratzeko: hezkuntza mobilizazioarekiko sentsibilizazioa garatzeko
6. Zenbait gakoren bila, lankidetza deszentralizatua eta jarduera humanitarioa hobetze aldera
7. Espezializatu al daiteke lankidetza deszentralizatua deszentralizaziorako laguntzan?
8. Tokiko eta eskualdeko garapen ekonomiko alternatiboko prozesuak. Lankidetza deszentralizatuaren apustua
9. Generoaren eraginkortasuna; edo generoa, eraginkortasunaren ikuspegia oinarri hartuta
10. Bide-laguntza, eraginkortasunerako gako

Iragana aitortu etorkizunera begiratzeko: euskal lankidetza deszentralizatua instituzionalizazioaren eta krisiaren artean



Argitaratzailea:

ALBOAN

Aita Lojendio 2, 2. • 48008 Bilbo

Tel.: 944 151 135 • Faxe: 944 161 938

Barañain Etorbidea 2 • 31011 Iruñea

Tel.: 948 231 302 • Faxe: 948 264 308

Andia, 3 • 20004 Donostia

Tel.: 943 275 173 • Faxe: 943 320 267

Estenaga Monsinorea, 1 • 01002 Gasteiz

Tel.: 945 202 676 • Faxe: 945 202 676

alboan@alboan.org

www.alboan.org

Egilea: Marlén Eizaguirre Marañón

Itzulpena: Bakun

2013. urtea

Azala: Muxotepotolobat

Diseinu eta maketazioa: Marra, S.L.

Imprimaketa: Lankopi, S.A.

Lege-gordailua: Bi-1270-2014

Lan honen erreprodukzio partziala baimentzen da, beti ere
helburu komertzialik ez badu eta iturburua apaitzen baldin bada.

Aurkibidea

1. Azterketaren aurkezpena eta metodologia	5
2. Eraginkortasunaren diskurtsoa eta lankidetza deszentralizatua. Mitoak eta egiak	9
3. Iragan hurbila: diskurtsoak eta jardunak	15
3.1. Plan zuzentzaileen ideia funtsezkoak	15
3.2. Lagundutako ekimenen bilakaera	18
3.3. Banaketa, tresnaren arabera	21
3.4. Lehentasunezko herrialdeak eta eskualdeak	26
3.5. Lehentasunezko sektoreak	31
3.6. Zehar-lerroak: generoa eta iraunkortasuna	39
3.7. Proiektuen jarraipena	44
4. Etorkizunari begirako erronkak krisian den lankidetzarako	49
5. Bibliografia	53

1. Azterketaren aurkezpena eta metodologia

Txosten honen xedea da Euskal Autonomia Erkidegoko zortzi erakunde publiko nagusiek, garapenerako lankidetzaren esparrura funts gehien bideratzen duten zortzi erakundeek, finantzatutako Nazioarteko Lankidetza proiektuak aztertzea¹. Hauek dira zortzi erakunde horiek: Eusko Jaurlaritza, hiru Foru Aldundiak, hiru hiriburuetako Udalak eta Euskal Fondoa.

Lankidetza deszentralizatuaren arloan, lanean urte gehien daramanetako bat da EAEko nazioarteko lankidetza, eta esanguratsuenetakoa ere bai. Tokiko esparruan, hala udaletan nola erkidegoan, egiten den lankidetzari esaten zaio lankidetza deszentralizatu. Hogeita bost urtetik gorako ibilbidean, erakunde publikoek eta gobernuz kanpoko erakundeek bultzatu eta gauzatutako proiektu eta programen bidez gauzatu dira lankidetza-ekimenak. Gaur egun, une kritikoan gaude, aurrean ditugun erronketara egokitu eta horiei modu egokian erantzun beharrean.

Hori dela eta, administrazio publiko nagusiek NLra bideratutako funtsen nondik norakoak jaso ditugu argitalpen honetan, baita proiektu horiek 2004-2011 urteetan izan dituzten ezaugarri nagusiak ere. Urteotan guztiotan, lankidetza-politika jakin bat sendotu da erakunde publiko gehienetan, planifikaziorako baliabideetan eta baliabide tekniko eta ekonomikoetan oinarritua. Gaur egungo testuinguruan, krisia bete-betean eragiten ari den honetan, ari gara egiaztatzen lankidetzarako konpromisoa, politika publikotzat harturik, sendoa den ala ez.

¹ Txostenean Hegoaldeko herrialde eta eskualdeetan garatutako proiektuak eta programak aztertzen dira modu espezifikoan, eta ez dira jasotzen Garapenerako Hezkuntzako proiektuak eta programak. Horiek serie honetako beste koaderno espezifiko batean jorratzen dira.

Txostenaren helburua da azken urteotako egoera deskribatzea, erakunde publikoek finantzatutako proiektuen arabera, zer bilakaera izan den baloratzeko. Azterlana bera egiteko, datuak bilatu beharrean izan gara, eta informazioa eskuratzeko dauden mugez eta informazioaren beraren kalitatearen mugez jabetu gara. Hori dela eta, NLren orientabideei buruzko proposamenak ez ezik, lankidetzaz-politika aztertzeke eta horren jarraipena egiteko beharrezkoa den informazioa eskuratzeari buruz ere zenbait proposamen egingo ditugu azterlan honetan.

Jabetzen gara txosten honek gure testuinguruan egiten diren lankidetzako jardueren zati bat baino ez duela azaltzen, EAEko erakunde publiko nagusiek finantzatutakoa, hain zuzen. Lankidetzaz horrez gain, badira beste batzuk: garapenerako hezkuntzako ekimenen finantzazioa², estatuko edo Europako hirugarren erakunde publiko nahiz pribatuen finantzazioaren bidez egiten diren programak, proiektuak eta ekintzak, eta gobernu kanpoko erakundeen eta haien ingurune hurbilenaren laguntza eta babesari esker egiten direnak, esaterako.

Informazioa eskuratzeko iturri nagusiak hauek izan dira: erakunde bakoitzak garapenerako lankidetzaren esparruan egindako lanari buruzko deskripzio-memoriak, kasurik onenean, eta aldizkari ofizialetan argitaratutako ebazpenak, beste batzuetan. Informazio horri esker jakin ahal izan dugu, gutxienez, nor izan den emalea, zein izan den deialdiaren eredu, urtea eta horri eman zaion publikizitatea. Lankidetzako proiektuei dagokienez, informazio hau eskuratu ahal izan dugu: proiektuaren titulua, zein GGKE-k aurkeztu duen eta zenbateko dirulaguntza jaso duen. Datu horiekin kodetu ditugu proiektuak, GLB eta CRS kodeen arabera³, kontuan hartuta aurreko proiektuen jarraipena ziren, zehazten ote zen zein talde jakinentzat bideraturik zeuden edota tituluaren ingurumen –edo genero-ikuspegiari buruzko informazio espezifikorik jasotzen ote zen. Aipatu dugun informazio hori titulutik atera dugu kasurik gehienetan, hori baita eskura dugun informazio publiko bakarra. Horrenbestez, nahiz eta lana zorrotz eta zehatz egin dugun, proiektuen nondik norakoak berri jakiteko gutxi gorabeherako hurbilketa baino ez da azterketa hau.

Bilboko Udalaren kasuan, GLBren beraren kodetzeari buruzko informazioa eskura daiteke, eta informazio horrek adierazten du tituluak, batzuetan, ez duela argi

² Atal horri buruzko informazio zehatzagoa jakiteko, jo bilduma honetako 5. argitalpena.

³ ELGAK ezarritako kodetzea da. Egitasmoek lehentasunez zein sektoretan eragiten duten aintzat hartuta sailkatzen ditu proiektuak kodetze horrek. GLB kodeak (Garapenerako Laguntza Batzordea) sektorea zehazten du, eta CRS kodeak (Coding Reporting System) sektore bakoitzaren barneko informazio zehatzagoa ematen du.

islatzen proiektuaren edukia. Mugak muga, interesgarria iruditzen zaigu lehen hurbilketa hau egitea; izan ere, gizarteak lankidetzaz-politiken jarraipena egiteko duen informazioaren kalitatea hobetzeko akuilu izan daiteke.

Kalitateko informazioa eskuratu ahal izatea funtsezko erronka da lankidetzaren garai berri hauetan. Informazio horrek aukera emango digu egindakoa aztertze-ko, plangintzan jasotakoarekin bat datorren jakiteko, bai eta lankidetzako ekimenen eragina baloratzen hasteko ere. Alde horretatik, tresna gehiago behar ditugu politika publikoen eta gizarte-erakundeek gauzatutako estrategien jarraipena eta ebaluazioa egiteko.

Informazio hori eskuratzeko, aldizkari ofizialetan bilatu behar izan dugu, erakunde-beraiei eskatu behar izan diegu eta hirugarren erakundeek web-orrialdeak aztertu behar izan ditugu. Alabaina, kasu gehien-gehienetan, informazioa ez dago eskura eta gehiago jakin nahi duenari ez zaio eskuzabaltasun handiz erakusten. Bestalde, erakundearen arabera, alde handia dago eskura dagoen informazioaren kalitatean eta zehaztasunean, eta horrek zaildu egiten du alderaketak egin ahal izatea. Bateratasun falta hori dela eta, datu-base berri batean sartu behar izan dugu informazio guztia, alderaketak erraztu ahal izateko.

Era berean, azpimarratzekoa da gardentasuna eta informazioa eskuratzeko aukera hobetuz joan direla aztertutako urteotan guztiotan. Zehazki, Udalek aurkezten dute informazio gehien eta hobekien egituratua, egindako ekintza guztiak zehazten dituzten jarduera-memorien bidez. Gainerako erakundeek informazio orokorra jasotzen dute webgunean, baina ez dituzte aurkezten ez ebazpenak ez eta egindakoari buruzko urteko memoriak ere. Hori dela eta, aldizkari ofizialetara jo behar izan dugu informazioa eskuratzeko eta, Foru Aldundi batzuen eta Euskal Fondoaren kasuan, eskaera zuzena egin behar izan dugu, duela zenbait urteko datuak lortzeko.

Hurrengo orrialdeetan, hasteko eta behin, eraginkortasunaren agendaren tes-tuinguru berria aurkeztuko dugu, lankidetzaz-politikaren zenbait parametroren gainean gogoeta egiteko eta horiek auzitan jartzeko. Hori eginda, azken urteotan finantzatutako ekimenak aztertuko ditugu bete-betean, eta, azkenik, etorkizun-nera begirako zenbait erronka aztertuko ditugu, jorratzeko interesgarriak direla uste baitugu.

2. Eraginkortasunaren diskurtsoa eta lankidetza deszentralizatua. Mitoak eta egiak

“Gobernuek eta nazioarteko erakundeek laguntzaren eraginkortasunari buruzko diskurtso ofizial bat eraiki nahian egindako ibilbideari loturik dago Eraginkortasunaren Agendaren diskurtsoa. Agenda hori 2002az geroztik laguntzaren eraginkortasunari buruz egindako lau foroetan adostutako dokumentu ofizialek osatzen dute, bai eta ondoren gai jakinen harira erantsitako zenbait dokumentu ofizial espezializatuk ere (estatu ahulei laguntzeari edo Hegoaldeak Hegoaldeari laguntzeari buruzkoak, adibidez)”.

Ibilbide horren abiapuntuan daude Nazio Batuen babesean sinatutako Milurtekoko Adierazpena (2000) eta, Milurtekoko Garapen Helburuei estu lotuta, Monterrey-n garapenaren finantzaketa jorratzeko egindako topaketa (Mexiko, 2002). Hiri horretan, adostasuna lortu zen finantzaketari lotutako hamaika alderditan (zorra, merkataritza, nazioarteko finantzak, etab.) eta dei argi bat egin zen, emandako laguntzaren eraginkortasuna hobe zedin. Une horretatik aurrera, ELGAren Garapenerako Laguntza Batzordearen (GLB) lemapean, bidea egin da, laguntza “eraginkor egiteko” irizpideak eztabaidatzeko eta adosteko. Tartean, mugarri hauek izan dira: Erroma (2003), Paris (2005), Akkra (2008) eta Busan (2011)⁴.

Akkra Goi-mailako Forora arte (2008) ez zen tokiko erakunderik eta gobernu kanpoko erakunderik izan agenda hori lantzeko.

⁴ Ikusi bilduma honetako sarrerako koadernoak.

1. Koadroa. Garapenaren eraginkortasuna zer den

Garapenaren eraginkortasuna zer den (Nairobiko Adierazpena, 2012ko abendua)

“Garapenaren eraginkortasunak aldaketa iraunkorrak sustatzen ditu, pobrezia, bereizketaren eta bazterketaren zioak zein sintomak kontuan hartzen dituen esparru demokratiko batean, elkar osatzen duten askotariko tresna, politika eta eragileen bidez. Garapenaren eraginkortasuna, laguntzari lotuta, garapen-eragileen politiken eta praktiken multzo gisa ulertzen da, laguntzaren eta garapenerako lankidetzaren eragina areagotzen duena, pobreak eta bazterketak jotako herrialdeen eskubideak betearazteko eta nazioartean adostutako garapen helburuak (NAGH) erdiesteko orduan⁵. Garapenaren eraginkortasunaren helburuak betetzeko baldintzek berekin ekarri behar dute laguntzaren eraginkortasuna hobetzeko konpromiso neurgarria”.

Eraginkortasunaren printzipioak (Istanbulko Adierazpena, 2010eko iraila)



1. Giza eskubideak eta gizarte-justizia errespetatzea eta sustatzea.



2. Genero-berdintasunarekin eta zuzentasunarekin bat egitea, eta aldi berean, emakumeen eta neskatuen eskubideak sustatzea.



3. Jabeakuntza, apropiazioa eta pertsona ororen partaidetza ardatz egitea.



4. Ingurumen-iraunkortasuna sustatzea.



5. Gardentasunez jokatzeko eta kontuak ematea.

⁵ Nairobiko Adierazpenean jasotzen denez, NAGH dira: “Nazio Batuen garapen-agendako zenbait helburu espezifikoaren multzo bat, askotan, epe jakin bat dutenak. Helburu horiek zenbait konpromiso laburbiltzen dituzte, 1990az geroztik, NBERen munduko goi-bileratan, garapenaren erronkei buruz hartutakoak. Konpromiso horietako batzuk Milurtekoko Adierazpenean jaso ziren, 2000ko NBERen Milurtekoko Goi Bileran parte hartu zuten gobernu guztien atxikimenduari. NAGHei barnean hartzen dituzte Milurtekoko Garapen Helburuak, helburu sorta handiago baten baitan. Besteak beste, nazioen hazkunde ekonomikoa, bereizketarik gabeko gizarte-garapena, lan duina, garapen iraunkorra, giza eskubideak (emakumeen, haurren eta indigenen eskubideak barne), mundua demokratikoki gobernatzea, bidezko merkataritza, zorra kitatzea eta migrazio-eskubideak”.



6. Zuzentasunean eta elkartasunean oinarritutako aliantzak egitea.



7. Ezagutzak sortze eta partekatzea, eta elkarrengandik ikasteko konpromisoa hartzea.



8. Aldaketa positiboak eta iraunkorrak lortzeko konpromisoa hartzea.

Iturria: Nairobi eta Istanbulko Adierazpenak.

Eraginkortasunaren agendaren ibilbide horretan, lankidetza deszentralizatuaren daturik ez da jaso dokumentuetan, eta eztabaidetan ere ez da izan lankidetza mota horren ordezkariarik, Akkrako Goi-mailako Forora arte. Nahiz eta eraginkortasunaren agendak berebiziko eragina duen tokian tokiko eta autonomia-erkidegoetako erakundeentzako, “hasiera batean, gobernu deszentralizatuak baztertu egin zuten Parisko Adierazpena, edo harekiko jarrera uzkurra adierazi zuten bederen, estatuak hartzen zituelako ardatz, baina Akkran emandako aurrerapausoen eskutik, leundu, zehaztu eta, askotan, alde batera geratu ziren lankidetza deszentralizatuaren esparrutik eginiko kritikak”⁶.

Agenda hori zehaztearekin bat, auzitan jarri da lankidetza deszentralizatu, Espainiako lankidetzaren elementu bereizgarria. Eraginkortasun handiagoa lortzea xedetzat harturik, auzitan jarri izan da lankidetza-eredu hori, gobernu kanpoko erakundeen parte-hartzean oinarriturik dagoelako eta estatuko lankidetza-politikarekiko koordinazio gutxiarekin. Auzitan jartze horrek hauspoturik gogoeta garrantzitsua egin da lankidetza deszentralizatuak balio berezirik ote zuen edo ez eta lankidetza horren izaerari buruz.

Eztabaida horretan bat egin dute eragile gehienek eta hauxe jo dute lankidetza horren balio espezifiktzat: tokian tokiko gaitasun instituzional eta sozialak sendotzea, eta garapenerako hezkuntzaren esparruan egiten duen ekarpena. Eragile gehienek iritzia da esparru horietan lankidetza deszentralizatuak abantaila duela beste lankidetza-eredu batzuekin alderatuta. Esperientzia bera eta ezaguera

⁶ Martínez I. (2011). *Por una cooperación descentralizada de calidad. Reflexiones para avanzar a una mayor eficacia*. http://www.iidl.es/ficheros/documentos/Por_una_Coop_descentralizada_definitivo.pdf. 19.

espezifikoa, baita gizartearekiko gertutasuna ere, lankidetzaren deszentralizatuaren bereizgarri pribilegiatutzat aipatzen dira sarri⁷.

Euskal Autonomia Erkidegoan, gogoeta gutxi egin da euskal lankidetzaren esparru globalari eginiko ekarpen espezifikoi buruz. Udalak izan dira, Foru Aldundiekiko eta Eusko Jaurlaritzarekiko beren bereizgarritasuna zehaztu beharrak akuilatuta, gogoeta horretan gehien sakondu dutenak. Garapenerako lankidetzaren aldeko Alkateen Adierazpena da horren adierazle; 1996an Euskal Fondoaren ernamuina izan zen adierazpen hori. Ibilbide horretan, Udalek zehaztu dute lankide izan dituzten erakundeek tokiko izaera, eta garrantzitsutzat jo dute izaera hori. Bide horretan aurrera, adibidez, Gasteizko Udala bera eragile bihurtu da udalerriko hiritarrak eta erakundeak beste errealitate batzuekin lotzeko lanean. Alde horretatik, hainbat lan-ildo izan dira: udalerrian bizi diren etorkinen jatorrizko herrialdeko errealitateak migrazio-eremuekin lotzea; uraren eta ubideen gaineko ezaguerak ematea eta horiei buruz gogoeta egitea; erosketa publikoa eta kontsumo arduratsua sustatzea... Bilboko Udalak emakumeen ahalduntzea eta tokiko boterea hartu du lehentasunezko lan-ildotzat. Donostiako Udalak, berriz, bereizketa egin nahi izan du lankidetzaren arloko beste eragile batzuekiko, eta adierazi du lankidetzaren horrek udalerriaren beraren bereizitasunak islatu behar dituela.

Eusko Jaurlaritzak, bestalde, lankidetzaren eremuan lanean hasi zenean, adierazi zuen euskal lankidetzaren lanbide-heziketaren eta enpresa kooperatiben esparrutik egin zezakeela ekarria. Hain zuzen, hasierako urteetan finantzatutako proiektu askoren oinarrian osagai horietako batzuk zeuden. Urteen joanean, ordea, GGKE-en jardunak berak eta joerak bultzatuta, diskurtso hori ahultzen joan da eta nazioarteko diskurtsoa indarra hartzen. GGKE-ak berak izan dira lankidetzaren ekimen gehien-gehienak aurkeztu eta martxan jarri dituztenak.

Alabaina, Plan Zuzentzaileak garatu ahala, tokiko garapena, erakundeak sendotzeko lana eta beste zenbait elementu indarra hartzen joan dira erakunde gehienek diskurtsoan eta jardunean⁸. Eusko Jaurlaritzak, plan zuzentzaileak landu aurretik, tokiko garapena, tokiko erakundeak sendotzeko lana eta deszentralizazio-prozesuei bultzada ematea aipatzen zituen. Gerora, plan zuzentzaileetan tokikoa bertakoa lehenetsi du Jaurlaritzak, zenbait zehar-lerro ardatz hartuta

⁷ Bi gai horiek serie honetako koaderno banatan jorratzen dira.

⁸ Sakontzeko: Unceta K., Amiano, I. Gutiérrez, J., Kabaiuen, I., Martínez, M.J., Malagón, E., Sabalza, M., Villena U., Zabalza, I. (2012). *25 Años de Cooperación al Desarrollo en Euskadi: La política de Instituciones Públicas y el Sistema Vasco de Cooperación*. Bilbo: HEGOA. 102-105.

(tokiko gaitasunak sendotzea, adibidez) eta sektore zehatz batzuk, hala nola tokiko agintea, oinarri direla. Diputazioek ere gauza bera, elkarrekin landutako planean tokiko giza garapenaren alde egiten dute apustu, eta hori hezurmamitzeko, tokiko garapena sustatzen dute eta tokiko erakundeak sendotzeko lana egiten dute.

Garapenerako Hezkuntza da (aurrerantzean GH)⁹ azken urteotan lankidetzaren deszentralizatuaren estrategia espezifiko hartu izan den beste esparruetako bat. Alde horretatik, aipatzekoa da EAEko erakunde guztietako lankidetzaren politikaren oinarrietako bat izan dela hezkuntza hori. Hala ere, egia da lankidetzaren “arrebak txikitatzen” hartu izan dela betidanik garapenerako hezkuntza. Deigarria da hainbat ekimen, gogoeta, azterketa eta proposamen egin direla, baina ez dagoela argitasun handirik lan-estrategia horri buruz. Eusko Jaurlaritzaren kasuan, arlo zehatzetako bat izan da lehen planean, eta jarraibide bat, bigarrenean. Azken horretan, zenbait zehar-lerro zehaztu ziren, hala nola generoa, giza eskubideak eta kulturartekotasuna. Auzitan jartzen da oraindik hezkuntza formalaren esparruan gogoeta eta ekimenik ez izatea, eta Eusko Jaurlaritzaren eskumena da esparru hori, ez dezagun ahaztu.

Garapenerako Hezkuntzak euskal lankidetzaren duen garrantzia aitortzeko mugarrietako bat hiru Foru Aldundiek elkarrekin landutako plana da (2009-2011). Planaren zehar-lerroetako bat da GH eta, horrenbestez, ardatz garrantzitsuenetako bat. Udalerrien mailan, nabarmentzekoa da Gasteizko Udalak, denbora batez bada ere, lehentasunezko sektoretzat identifikatu dituela ikastetxeak. Donostiako Udalak ere, giza eskubideen, tolerantziaren eta xenofobia eta arrazakeriaren inguruko politikekin lotu du hezkuntza hori. Bilboko Udalak, bestalde, zabaldu egin ditu jarduerak: sentsibilizazioa, eragina, garapen formalerako eta ez-formalerako hezkuntza, bidezko merkataritza eta kontsumo arduratsua edota erosketa publiko etikoa jorratu ditu besteren artean. Hainbat tresna, dekretu zehatz (garapenerako sentsibilizazioa eta hezkuntza, kasu batzuetan) eta diru-kopuru jakinetan zehaztu da estrategia hori. Aurreikusitako zenbatekoak, funts guztien 6 eta 10 bitartekoak izan dira kasurik gehienetan. Badira salbuespenak ere, Donostiako Udalak, esaterako, funtsen 25etik gorako kopuruak aurreikusi ditu hainbat urtetan.

Laburbiltze aldera, eraginkortasunaren agenda sortu den testuinguruan, euskal lankidetzaren balio zehatza oraindik ere mamitzen ari da. Agenda hori, orain arte,

⁹ Ibidem, 105-110.

laguntzaren eragina hobetzeko osagai teknikoetan oinarritu da batez ere. Bestalde, gizarte-erakundeek garapenaren eraginari buruzko eztabaida hauspotu dute, eta eztabaida horretan pertsonak eta haien komunitateen eta ingurunearen garapena dira garrantzitsuena. Eztabaida horrek bultzatuta, gizarteko erakunde eta sare askok garapenaren agenda negoziatzen ari zirenei kontuak eskatzera bideratu dituzte beren ekintzak eta mobilizazioak, aurreko urteetan garapenaren alde aritu ziren eragileak, eta finkatu ziren gaiak eta konpromisoak alde batera utzita ari baitziren agenda hori negoziatzen.

3. Iragan hurbila: diskurtsoak eta jardunak

3.1. PLAN ZUZENTZAILEEN IDEIA FUNTSEZKOAK

Euskal lankidetzak 25 urtetik gorako ibilbidea egin du jada. Erakunde publiko gehienek bultzatu dute lankidetzaren hori, Eusko Jaurlaritzak berak, Foru Aldundiek eta Udalek. Elkartasunezko politika horrekiko konpromisoa garrantzitsua izan da, hortaz, bai bideratutako laguntzen zenbatekoan bai proposamenen kalitatean.

Aldi berean, gizarte zibil antolatuak hala eskatuta sortu zen lankidetzaren – edo elkartasun-politika hori, 1988. urterako jada politika horren aldeko aldarria egin baitzion Eusko Legebiltzarrari. Ordutik hona, pixkanaka-pixkanaka erakunde askok, gizarte-erakundeekin elkarlanean, hainbat programa eta tresna jarri dituzte martxan. Erakundeek kasuan bezala, neurri eta leku askotako gizarte-erakundeekin jardun dute esparru horretan lanean. Tokian tokiko elkarte eta taldeek eta EAEn egoitza duten nazioarteko hainbat erakundek osatu dute elkartasunezko mugimendua hori 25 urteotan. Aldi berean, elkarte mugimendua sendoa izan da EAEn, eta mugimendua horretako zenbait gizarte-erakunde erreferentzia garrantzitsu izan dira EAEn bertan eta estatuan. Erakunde horiek, EAEn egoitza izanik, nazioarteko gizarte-erakundeekin eta estatuko, Europako eta nazioarteko finantzatzaileekin aritu dira elkarlanean. Horien ondoan beti izan dira elkartasunezko mugimendua internazionalistak, eta horiek ere elkarlanean aritu izan dira lankidetzaren arlo honetan, nahiz eta beste planteamendu batzuekin izan. Unibertsitateak eta haien institutuak ere eragile garrantzitsuak izan dira politika honetan, baita ikastetxe batzuk eta ikerketa eta prestakuntza arloko entitate batzuk ere.

Lankidetzaz hori egia bihurtzeko esku hartzen duten eragile eta erakundeen indar eta aniztasunaren adierazle da aipatutako guztia. Azken urteotan, gainera, Iparrak eta Hegoak elkarrekiko duten beharra eta haien arteko zenbait muga hautsi direla egiaztatu ondoren, beste hainbat eragile bildu dira politika hauen esparrura: sindikatuak, migrazioei loturiko erakundeak eta gizarte-erakundeak, oro har.

Ibilbide horretan, araudi, politika eta tresna askotarikoak garatu dira erakunde batzuetan eta besteetan, baita gizarteko erakundeen esparruan ere. Azterlan honetan, EAEko erakunde finantzatzailer nagusiak aztertuko ditugu; hau da, Eusko Jaurlaritzaz, hiru Foru Aldundiak, hiru hiriburu-eta Udalak eta Euskal Fundoa. Zehazki, gizarte-erakundeei onartu dizkieten proiektu eta programak aztertuko ditugu, nazioarteko lankidetzaren azken urteotako nondik norakoen berri azaltzeko¹⁰.

Horrenbestez, Eusko Jaurlaritzak lankidetzan eginiko ibilbidea labur aztertzen hasita, esan genezake Legebiltzarrean 50.000 sinadura aurkeztearekin batera hasi zela ibilbide hori; EAEko aurrekontuaren 0,7 lankidetzara bideratzeko konpromiso esplizitua eskatu zioten herritarrek Jaurlaritzari sinadura haien bidez. Eskabide haren ondorioz, urte hartan aurrekontuaren 300 milioi pezetara bideratu ziren “garapena laguntzeko jardueretara”. Ibilbide horretan mugarri garrantzitsua izan zen Garapenerako Lankidetzako eta Laguntzako Funtsez eratzea, 1990ean. Eusko Jaurlaritzak eta hiru Foru Aldundiek eratu zuten laguntzako funts hori eta 2004. urtera arte eutsi zioten. Eusko Jaurlaritzak kudeatzen zuen funtsa, baina Aldundiek ere esku hartzen zuten erabakiak hartzeko prozesuetan. Aldundiek beren politikak garatzea erabaki zutenean eman zuten amaitutzat funtsaren ibilbidea. Hala, zenbait Aldundi urte batzuk lehenago hasi ziren zenbait funts kudeatzen, eta beste funts batzuk Garapenerako Lankidetzako eta Laguntzako Funtsean partekatzen. Gipuzkoako Foru Aldundia izan zen funts hori uzten azkena, eta, aurretian aipatu dugunez, 2004an hasi zen bere politika garatzen. Bizkaiko Foru Aldundiak 2001ean utzi zuen eta Arabakoak, 2003an.

Bestalde, tokiko erakundeek ere garatu eta bultzatu dituzte beren lankidetzapolitikak. Alde horretatik, mugarri nabarmena izan zen Euskal Fundoaren Elkartearen

¹⁰ Azken 25 urteotako euskal lankidetzapolitikak zehatzago aztertzeko, liburu hau gomendatzen dugu: Unceta K., Amiano, I. Gutiérrez, J., Kabaiuen, I., Martínez, M.J., Malagón, E., Sabalza, M., Villena U., Zabalza, I. (2012). *25 Años de Cooperación al Desarrollo en Euskadi: La política de Instituciones Públicas y el Sistema Vasco de Cooperación*. Bilbo: HEGOA. Eta 2008-2010 urteetarako, berriz, beste azterlan hau gomendatzen dugu: Rodríguez, N. (2013) *Análisis de la cooperación pública vasca 2008-2010. Una mirada a la cooperación descentralizada*. Gasteiz: Coordinadora de ONGD de Euskadi/ Euskadiko GGKE-en Koordinakundea.

eraketa, 1996an. Garapenerako lankidetzaren aldeko Alkateen Adierazpenaren ondotik ekin zion bideari Euskal Fondoak.

labilbide horretan, erakunde batzuek eta besteek hainbat lankidetzaz-politika garatu zituzten hasieran, eta, gerora, Plan Zuzentzaileak taxutu zituzten, egoeraren analisisa oinarri hartuta, etorkizunera begirako lan-ildoak zehazteko. Erakunde bakoitzak landu ditu bere plan zuzentzaileak, Aldundiek izan ezik. Foru Aldundiek elkarrekin landu zuten 2009-2011 plan bateratua. Plan zuzentzaile horiek lan-ildoak finkatzen dituzte, eta, proposamen askotarikoetan mamituta, nazioarteko itunen funtsezko ideiak jasotzen dituzte. Pobrezia murriztea, tokiko garapen-estrategiak sustatzea eta generoa, ingurumena, giza eskubideak eta antzeko beste zenbait elementu zehar-lerrotzat hartzea, horiek dira plan horien oinarritzako printzipioak. Erakundearen arabera, batek printzipio bati ematen dio indar handiagoa eta besteak besteari. Uncetaren hitzetan (2012) plan horietan zehaztasuna falta da euskal lankidetzaren berezitasunari edo ekarpen espezifikoari buruz. Azken urteotan, eztabaida sortu da, zein ote den lankidetzaz deszentralizatuaren berezitasuna (tokiko erakundeek, Foru Aldundiek nahiz Jauralaritzak egindako lankidetzarena), eta eztabaida horri emandako erantzuna izan da tokiko garapen-estrategiak sustatzea eta garapenerako hezkuntzaren aldeko politikak bultzatzea. Estrategia horiek argiagoak izan dira Udalek egindako politiketan (bereziki Gasteizkoak eta Bilbokoak) gainerako erakundeek egindakoetan baino.

Urteotan guztietan, gure gizartean eta nazioartean izan diren aldaketa sozial eta politikoen isla izan dira lankidetzaz-politikak. Hala ere, politika horiek hazten eta garatzen joan dira, eta zenbatekoak handitzen. Hala, erakunde batzuek, Gasteizko Udalak esaterako, sarrera arrunten 1 bideratu dute lankidetzara. Azken urteotan, eztabaida bizia izan da BPGaren 0,7 erkidegoko eta tokiko testuingurura egokitzeko. Ez da adostasunik lortu, ordea, eta 0,7ko zifra horretara iristeko, erakunde askok egiten duena da diru gehiago bideratu ordez 0,7 kalkulatzeko oinarritzat hartzen den zenbatekoa moldatu. GGKE-en Koordinakundearen eta ALBOANen proposamena da erakundearen aurrekontu finkatuaren 0,7ari jarraipena egitea¹¹.

Lankidetzaz-lana auzitan jartzeko arrazoiak eta faktoreak, bistan denez, askotarikoak dira: arestian aipatu duguna, konpromiso horien jarraipena egiteko informazioarik ez izatea; azken urteotan gure gizartean gero eta gehiago erasaten ari

¹¹ ALBOAN (2007) *Zenbakiez haratago: La cooperación al desarrollo vasca a debate*. Ikerketak, 3. zk. ALBOAN: Bilbo.

den krisia; lan horren eraginkortasuna bera; eta, azkenik, erakunde horietako batzuek lankidetzaren arloan izan dezaketen eskumena ezbaian jarri izana.

Bestalde, urteotan guztietan lankidetza-ekimenak egin dituzten gizarte-erakundeek profesionalizatu egin behar izan dute pixkanaka, eta agendetako eztabaida gero eta konplexuagoetan parte hartu behar izan dute, errealtate hori eta norberak nahiz taldeak egin dezakeen ekarpenaren garrantzia gizarteari helarazteko ahalegina eginez. Gaur egun gizarte-erakundeak auzitan jarriak dira eta auzitan jartzen ari dira beren hazkundean, diskurtso gero eta konplexuagoak mamitze horretan eta profesionalizatzean ez ote den galdu beren identitatearen zati bat: beren oinarri sozialari loturiko gizarte-erakundeak izatea, oinarri horren eskakizun eta aldarrien isla izatea eta gizartea politika horien alde mugiarazteko gai, lankidetza soilik erakunde publikoen esku utzi gabe. Ezpal askoko eztabaida da hau, eta aintzat hartu beharrekoa litzateke elkarteen mugimenduen balioa eta elkarreek baliabideak eta gaitasunak mobilizatzeko oinarri sozialekin duten lotura. Bestalde, auzitan jartze horretan eragin nabarmena du gizartearen gaur egungo joerak, gero eta gehiago balio indibidualistak lehenesten baitira, eta, testuinguru horretan, gizarte-erakundeek diskurtsoa kontrakulturala da, gaur egun duela urte batzuk baino kontrakulturalagoa; izan ere, erakundeek, instituzionalizatu diren honetan, galdu egin dute malgutasuna eta egokitze gaitasuna, eta duela hainbat urtetik hona bultzatu dituzten prozesuekiko epe ertain eta luzerako konpromisoa lehenetsi dute, horren ordez.

Testuinguru horretan, beraz, egingo dugu atzera-begiratua gure iraganera, eskuratu ahal izan ditugun datuetan oinarrituta, eta etorkizun hurbilari begirako gogoetak proposatzeko asmoarekin. Helburua ez da soilik lankidetzara bideratutako funtsen zenbatekoak handitzea; aitzitik, lankidetzaren kalitatea hobetzea ere bada helburua, eta horretarako, gizarte-erakundeek nahiz erakunde publikoek erantzuna eman behar diote testuinguru berri honetan aurrean duten erronkari, eta betiko estrategiak eta tresnak ez dira aski erantzun hori emateko.

3.2. LAGUNDUTAKO EKIMENEN BILAKAERA

Lan honetan aztertutako urteetan (2004-2011) hiru fase edo une nagusi bereizten dira. Aurrenekoan, 2004-2006 urteetan, funts publikoen bidez lagundutako ekimenei eta zenbatekoei jarraipena emateko politika nagusitu zen, oro har. Bigarren fase batean, 2006tik 2008ra, nabarmen hazi ziren lankidetzara bideratutako funtsak. Eta 2008tik hona, murriztu egin dira bideratutako funtsak, kasu

batzuetan oso nabarmen. Eskuratutako informazioaren arabera, badirudi murrizketa hori leundu egin zela 2010ean, baina eguneroko jardunak erakusten du hori ez dela horrela, eta Eusko Jaurlaritzaren kasuan, esaterako, murrizketa izugarria gertatu da 2013an. Erreparatu besterik ez dago 1. taulari ohartzeko aztertutako erakunde ia guztiek joera bera izan dutela, funtsak murriztekoa, alegia. Bilboko Udalaren kasua da salbuespena, jokabide nahiko egonkorrari eutsi baitio azken urteotan.

Zenbateko horiek dirutara ekarrita, 381 milioi euro izan dira guztira 8 urteotan, horietatik 60 baino gehiago Eusko Jaurlaritzak bideratuak. Laguntzaren garrantzia aintzat hartuta, Bizkaiko Foru Aldundia da hurrengoa, funtsen ia 18 jartzen baitu, eta, azkenik, Arabako Foru Aldundia eta Donostiako Udala daude, 1,5eko ekarriarekin.

1. Taula. Erakunde nagusiek finantzatutako zenbatekoa 2004-2011

Emaillea	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	Guztira orokorra
BIL	2.634.546,00	3.544.737,00	1.549.209	2.008.748,00	2.034.085,00	1.661.515,80	1.966.041,00	1.605.500,00	17.004.381,80
AFA	1.692.000,00	1.379.999,77	1.707.722,79	1.666.081,92	3.494.268,68	1.267.904,02	901.722,66	499.120,43	12.608.820,27
BFA	4.692.213,00	5.022.690,00	5.416.382,2	6.178.469,96	7.733.640,00	7.813.583,99	10.266.751,48	6.296.704,59	53.420.435,22
GFA	2.468.640,98	2.386.260,66	3.070.539,47	3.214.275,18	3.713.648,37	3.416.500,00	3.285.853,90	3.105.981,50	24.661.700,06
DON	661.273,00	458.336,00	423.875,00	439.000,00	611.789,05	515.113,38	516.000,00	516.209,72	4.141.596,15
EF	1.257.790,90	1.438.264,00	1.809.221,00	1.539.435,26	1.924.879,02	1.948.453,61	1.929.374,67	1.270.157,15	13.117.575,61
EJ	19.177.337,28	21.093.989,33	21.418.578,67	33.058.306,11	33.496.800,11	35.941.365,02	36.763.349,40	36.981.199,13	237.930.925,10
GAS	1.874.759,94	2.229.774,30	2.157.822,51	2.310.179,21	2.454.742,17	2.943.102,47	2.312.797,48	2.232.721,71	18.515.899,79
Guztira	34.458.561,10	37.554.051,06	37.553.350,64	50.414.495,64	55.463.852,40	55.507.538,29	57.941.890,59	52.507.594,23	381.401.334,00

Iturria: Geuk egina, ALBOANek bildutako datu ofizialak oinarri hartuta.

Bestalde, interesgarria da jabetzea proiektuen zenbatekoak aldatu egin direla. Hala, lagundutako ekimenen bilakaerari buruzko grafikoak bestelako joera erakusten du zenbatekoen bilakaera adierazten duen grafikoarekin alderatuta. Erakusten du, hain zuzen, 2008tik hona nabarmen gutxitu dela finantzatutako ekimenen kopurua, finantzatzaile gehienek kasuan, gainera. Horrek adieraz dezake prozesu batzuetan halako sakontzea eta espezializatzea gertatu dela eta zenbateko handiagoak bideratu direla horietara. Eusko Jaurlaritzaren kasuan, esaterako, programen tresna martxan jartzearekin batera gertatu da hori.

2. Taula. Erakunde nagusiek finantzatutako ekimenen kopurua 2004-2011									
Emaila	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	Guztira orokorra
BIL	33	33	32	29	27	24	28	32	238
AFA	19	18	14	20	41	28	25	11	176
BFA	46	41	46	50	73	74	75	55	460
GFA	21	19	25	30	29	35	33	34	226
DON	37	34	29	33	38	17	14	10	212
EF	14	13	14	16	14	16	16	8	111
EJ	84	84	71	98	101	105	100	87	730
GAS	43	38	43	57	48	53	39	32	353
Guztira orokorra	297	280	274	333	371	352	330	269	2.506

Iturria: Geuk egina, ALBOANek bildutako datu ofizialak oinarri hartuta.

3.3. BANAKETA, TRESNAREN ARABERA

Aurrez aipatutako zenbatekoak hainbat tresnatan eta tresnaren bidez banatzen dira. Tresna klasikoena proiektuen deialdiak dira; horien bidez finantzatzen dira ekimen gehien-gehienak. Erakunde guztiek egiten dituzte proiektuen deialdiak; batzuek, deialdi bateratuak egiten dituzte nazioarteko lankidetzarako eta garapenerako hezkuntza eta sentsibilizaziorako, eta beste batzuek, deialdi espezifikoak, esku-hartze motaren arabera. Tresna horren bidez gauzatzen da finantzatutako ekimen 80, eta bideratzen da funtsen 84. Tresna hori osatzeko eta egoera eta baldintza batzuetara eta besteetara hobeto moldatzeko, 2007-2009.

urteetatik aurrera, erakundeek beste tresna batzuk garatu dituzte. Ekimen puntualen estrategia hiru Aldundiek elkarrekin egindako planaren esparruan jarri zen martxan, beharizan oso espezifiko, zehatz eta puntualai erantzuteko; lankidetzako proiektuen muntarik izan ez arren eta haien irizpideak bete ez arren, premiazkoak ziren beharizanei erantzuteko, hain zuzen. Bestalde, 2008an tresna espezifikoak garatu ziren proiektuetan eta erakunde mailan generoaren ikuspegia txertatzeko. Gaur egun, bai Foru Aldundiek bai Eusko Jaurlaritzak aholkularitza-lana egiteko aukera ematen duten tresnak dituzte, lankidetzako edo garapenerako hezkuntzako proiektu zehatzetan eta erakunde mailan generoaren ikuspegia txertatzeko¹². Eta azkenik, GGKE-ek betidanik izan duten eskakizunari erantzunez, programen tresna dago. Denbora aldetik konpromiso handiagoa eta munta handiagokoa bermatzen dute programek lankidetzarako garrantzitsuak diren estrategia batzuetarako. Tresna horiek guztiek garapen-prozesuei laguntzeko estrategia hezurmamitzen dute. Ekimenen 87 bideratzen da tresna horien bidez eta lankidetzara bideratutako funtsen 92.

Ekimenen 8 inguru larrialdiko edo laguntza humanitarioko ekintzetara bideratzen da¹³. Laguntza humanitarioari buruzko datuen gainean gutxiago dakigu; izan ere, laguntza hori ez da beti deialdi publikoen bidez eta GGKE-en bitartez bideratzen. Eskuratu ahal izan dugun informazioaren arabera, funtsen 7 inguru laguntza humanitariora bideratzen da eta kasu gehienetan GGKE-en bitartez, baina larrialdi – eta krisi-egoeretan, beste esparru eta sail batzuekin ere izaten da elkarlanik, eta horiei buruzko informaziorik ez dugu.

Horixe bera gertatzen da erakundeek zuzenean ematen duten laguntzarekin; batez ere hitzarmenen bitartez bideratzen da laguntza hori. Laguntza zuzen horien bitartez bideratzen da ekimenen 5 baino gehiago eta funtsen 1. Erakundearen arabera, handiagoa edo txikiagoa da laguntza horien garrantzia. Nolanahi dela ere, beste behin informazio argia eskuratu dugu Gasteizko eta Bilboko Udaletatik, baina ez beste erakundeetatik.

¹² Bilduma honetako 9. koadernoak generoaren gaia jorratzen du bereziki, eta eskura dago gaiari buruz gehiago jakin nahi dutenentzat.

¹³ Bilduma honetako 6. koadernoak laguntza humanitarioaren gaia jorratzen du bereziki, eta eskura dago gaiari buruz gehiago jakin nahi dutenentzat.

3. Taula. Banaketa, tresna motaren arabera (2004-2011)

Laguntza mota	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	Guztira orokorra
Ekintza puntualak	-	-	-	-	-	19	24	19	62
Laguntza humanitarioa	11	20	7	21	39	30	47	37	212
Hitzarmena	25	13	14	18	15	18	18	8	129
LH esparruko estrategia	-	-	-	-	2	2	3	3	10
Generoaren ikuspegia txertatzea	-	-	-	-	25	15	13	-	53
Programa	-	-	-	4	3	5	4	8	24
Proiektua	262	247	251	290	286	263	218	194	2.011
Guztira orokorra	298	280	272	333	370	352	327	269	2.501

Iturria: Geuk egina, ALBOANek bildutako datu ofizialak oinarri hartuta.

4. Taula. Guzтира bideratutako zenbatekoa, tresnaren arabera, eta guztizkoaren gaineko ehunekoa (2004-2011)

Laguntza mota	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	Guztira orokorra
Ekintza puntualak	-	-	-	-	-	262.452,47	417.855,26 % 1	352.381,51 % 1	1032.689,24
Laguntza humanitariora	290.399,95	1.013.874,00 % 3	443.342,07 % 1	3.686.253,00 % 7	2.993.391,76 % 5	3.284.298,64 % 6	4.010.797,79 % 7	4.321.858,27 % 8	20.044.215,48
Hitzarmena	768.507,99 % 2	1.391.664,72 % 4	454.116,44 % 1	1.177.031,76 % 2	563.256,68 % 1	823.895,43 % 1	756.818,32 % 1	529.225,77 % 1	6.464.517,11
LH esparruko estrategia	-	-	-	-	1.407.086,10 % 3	1.524.589,05 % 3	1.904.818,00 % 3	2.098.316,58 % 4	6.934.809,73
Generoaren ikuspegia txertatzea	-	-	-	-	37.431,00 % 0,07	61.459,95 % 0,11	48.277,95 % 0,08	-	147.168,90
Programa	-	-	-	4.498.586,88 % 9	3.422.246,00 % 6	5.543.758,14 % 10	4.698.304,38 % 8	8.200.000,00 % 16	26.362.895,40
Proiektua	33.398.658,16 % 97	35.148.512,34 % 94	36.578.027,13 % 98	41.052.624,00 % 81	46.965.440,86 85 %	44.007.084,61 % 79	45.975.897,89 % 80	37.005.812,10 % 70	320.132.057,10
Guztira orokorra	34.457.566,1	37.554.051,06	37.475.485,64	50.414.495,64	55.388.852,4	55.507.538,29	57.812.769,59	52.507.594,23	3.811.183.530,00

Iturria: Geuk egina, ALBOANek bildutako datu ofizialak oinarri hartuta.

Analisia erakundeen arabera xehakatuz gero, bakoitzak zer tresna mota baliatu duen jabetuko gara. Eusko Jaurlaritzak baliatzen du tresna gehien, baina taulak argi erakusten duenez, zaila da lehen urteetan lagundutako ekimen humanitarioen berri jakiteko informazio publikoa eskuratzea, bai eta Eusko Jaurlaritzak finantzatutako hitzarmenen berri ere, berdin Gobernuak zuzenean lagundutakoak berdin GGKE-en bidez lagundutakoak.

Foru Aldundien kasuan, elkarrekin landutako Plan Zuzentzaileak (2009-2011) beste tresna bat ekarri du: ekintza puntualak. Bestalde, generoaren ikuspegia xertatzeko tresnari dagokionez, erakunde batzuek gehiago baliatu izan dute beste batzuek baino; hain zuzen, Bizkaiko eta Arabako Foru Aldundiek jarri izan dute martxan.

Azkenik, nabarmentzekoa da Gasteizko Udalak modu iraunkorrean baliatu dituela tresna batzuk eta besteak, aztertutako urteotan guztiotan: ekintza humanitaria (azken urteotan Arabako Foru Aldundiarekin koordinaturik, Larrialdietako Arabako Funtsaren bidez), hitzarmenak (Udalak berak bultzatutako ekintzekin, Euskal Fondoarekin eta gobernuz kanpoko erakunde batzuekin elkarlanean Saharara laguntza bideratzeko prozesuetan), eta proiektuak.

5. Taula. Tresnaren arabera banaketa Eusko Jaurlaritzan (2004-2011)									
Laguntza mota	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	Guztira orokorra
Laguntza humanitarioa	-	-	-	7	14	17	21	21	80
Hitzarmena	-	7	-	2	-	-	-	-	9
LH esparruko estrategia	-	-	-	-	2	2	3	3	10
Programa	-	-	-	4	3	5	4	8	24
Proiektua	84	77	71	85	82	81	72	55	607
Guztira orokorra	84	84	71	98	101	105	100	87	730

Iturria: Geuk egina, ALBOANek bildutako datu ofizialak oinarri hartuta.

3.4. LEHENTASUNEZKO HERRIALDEAK ETA ESKUALDEAK

Euskal lankidetzaren ezaugarrietako bat da gizarte-erakundeetan oinarriturik dagoela, eta gizarte-erakunde horiek, berriz, denboraren joanean hainbat herrialde eta eskualdetan ehundu diren harremanetan. Latinoamerikarekiko harremanak izan dira lankidetzaren ekimenen muina, 6. taulan ikus daitekeenez. 1980ko hamarkadatik, elkartasun-taldeek, elizako oinarritzko taldeek eta misiolariak hartu-eman eta lotura handia izan dute Erdialdeko Amerikarekin, eta hortik hainbat erakunde sortu dira, batzuk instituzionalizatuagoak eta profesionalagoak besteak baino, errealtate horiei laguntza emateko.

Era berean, Hego Amerikako hainbat herrialderekin ere hartu-eman iraunkorra izan da aspaldidanik, hala nola Bolivia, Ekuador, Peru, Venezuela eta Kolonbiarekin, eta azken urteotan sendotu egin da harreman hori.

Afrikarekiko hartu-emana larrialdi-egoerek eta laguntza humanitarioko ekintzek baldintzatu dute nagusiki, baita misiolarien tradizioak ere. Hala ere, azken urteotan luze-zabal egin da gogoeta Afrikako egoerarekin konpromisoa hartzeko beharraz; izan ere, kontinente hartan daude GGI (Giza Garapen Indizea) txikiena duten herrialdeak. Erakunde askotako plan zuzentzaileak Afrikako egoerari lehentasuna ematen hasi dira, eta Eusko Jaurlaritzak, esaterako, funtsen 10 agindu du hango herrialdetarako. Aukera horien ondorioz, Afrikara bideratutako proiektu eta funtsek izan duten hazkunde nabarmena ikus daiteke 6. taulan. Aztertutako gainerako urteetan ere mantendu egin da hazkunde hori. Eusko Jaurlaritzak, Arabako Foru Aldundiak eta Gasteizko Udalak egin dituzte ekarpen handienak Afrikarako, eta batez ere haien eskutik etorri da hazkundea. Horretarako, GGKE batzuk Afrikan hasi dira lanean azken urteotan. Hala ere, aipatzekoa da zenbait erakundek konpromiso iraunkorra dutela aspaldidanik Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoarekin (SEAD) eta Palestinako lurraldeekin. Azken aldian, erakunde batzuek laguntzarako bideak zabaldu dituzte Saharaz hegoaldeko Afrikako herrialdeetan, gaur egun Euskadin bizi diren herrialde haietako pertsonen kontaktuari esker.


Bestalde, Asiarekin batez ere misioen bitartez izan da hartu-emana. Tsunamiak berebiziko eragina izan zuen 2005ean, baina pobrezia eta bazterketa handiko egoerak badiren arren (bereziki emakumeen artean), izugarri garatzen ari diren herrialdeak ere badira kontinente hartan. Bilboko Udalak eta Foru Aldundiek egin izan dituzte ekarpen esanguratsuenak lurralde hartarako.

Azkenik, 6. taulan ikus dezakegu hainbat proiektu eta elkarlan izan direla Europan bertan, Ekialdeko Europako zenbait herrialdetan, hain zuzen, baita pres-takuntzako eta trukeko zenbait ekintza ere, Europako beste herrialde batzuetako erakundeen ordezkariekin. Eta azkenik, *Ez dago eskura* zutabearen adierazten direnak talde batzuen eta besteen artean sareak eta aliantzak sustatzeko proiektuak izan daitezke, eskualde mailakoak nahiz nazioartekoak. Lankidetzako funtsetan oso bakanak dira horrelakoak, ikus daitekeenez.

6. Taula. Erakundeek finantzaturako proiektuen eta zenbatekoen banaketa kontinentearen arabera						
Urtea	Afrika	Amerika	Asia	Europa	Ez dago eskura	Guztira orokorra
2004	7.416.917	25.684.006	1.039.941	323.703	-	34.464.566
2005	6.727.062	28.155.553	2.213.601	457.835	-	37.554.051
2006	8.615.022	27.708.490	892.320	337.519	-	37.553.351
2007	12.185.359	34.517.325	1.341.884	583.611	1.786.318	50.414.496
2008	12.912.721	38.943.251	3.371.760	236.121	-	55.463.852
2009	14.443.039	38.254.233	1.974.137	228.989	589.146	55.489.544
2010	13.777.881	41.851.955	1.940.921	371.134	-	57.941.891
2011	12.416.817	38.925.073	1.165.703	-	-	52.507.594
Guztira orokorra	88.494.817	274.039.885	13.940.267	2.538.912	2.375.464	381.389.344


Iturria: Geuk egina, ALBOANek bildutako datu ofizialak oinarri hartuta.

1. Grafikoa. Finantzatutako proiektuen banaketa kontinentearen eta urtearen arabera (2004-2011)



Iturria: Geuk egina, ALBOANek bildutako datu ofizialak oinarri hartuta.

2. Grafikoa. Erakundeek finantzatutako proiektuen eta zenbatekoen banaketa kontinentearen arabera (2004-2011)



Iturria: Geuk egina, ALBOANek bildutako datu ofizialak oinarri hartuta.

Kontinente batean eta bestean laguntza nola banatzen den ikusita, lankidetzari buruzko ikuspegi orokorraz jabetuko gara, baina begirada gerturatu eta herrial-

deei erreparatzen badiegu, ohartuko gara laguntza jasotzen duten aurreneko hamar herrialdetatik bederatzi Amerikakoak direla. Kongoko Errepublika Demokratikoa da salbuespen bakarra eta, urteotako guztietako laguntzak aztertuta, zortzigarren lekuan dago. Hala ere, azken hiru urteotan jasotako laguntzen arabera, gorago legoke. Horrenbestez, lekua eta garrantzia hartzen ari da herrialde hori, euskal lankidetzaren egitasmo eta zenbaki orokorretan.

Peru da garapenerako laguntza eta funts ofizial gehien jasotzen duen herrialdea, alde nabarmenarekin gainera. Kasu honetan, oro har, handitu egin dira herrialde hartara bideratutako funtsak; urteotan guztiotan haztekoa izan da joera. Lankidetzaren deszentralizatuaren diharduten erakunde ia guztiek lehenetsi dute herrialde hura, eta azken urteotan ezbaian jarri da hautu hori, askoren iritzia baita Peru errenta ertaineko herrialdea bihurtzen ari dela, eta betidanik ahaztuta izan diren eskualde eta taldeek planteatutako erronketako batzuk bere gain hartzeko moduan dela.

Erdialdeko Amerikako Guatemala, El Salvador eta Nikaragua daude bigarren, hiru-garren eta seigarren lekuan. Tradizioz, herrialde haiekiko lankidetzaren garrantzitsua eta bizia izan da 1980ko hamarkadatik. Alabaina, 7. taulak erakusten duenez, lankidetzaren garrantzia galtzen ari da lankidetzaren zenbateko orokorretan, nahiz eta egonkor samar eusten dion oraindik.

Kubarekiko hartu-emanaren bestelakoa izan da, eta uste dugu Eusko Jaurlaritzaren politikek eta jokabideak baldintzatu duela hori neurri handi batean; izan ere, urte batzuetan laguntza argia eta funtsezkoa izan da, eta gerora garrantzia gutxitzen joan da. Kontrakoa gertatu da Bolivia (bosgarren lekuan) eta Ekuadorrekiko (zazpigarrenean) lankidetzarekin: azken urteotan proposamen zehatzak hezurramitu dira herrialde haiekin, eta hango gizarte-erakundeak euskal lankidetzaren publikoaren laguntza jasotzen ari dira.

Hamar aurrenekoen talde horretan azkenak Kolonbia eta Mexiko dira. Kolonbiaren kasuan, funtsen zenbatekoa handitzen joan da oso gutxika; Mexikoren kasuan, berriz, funtsen zenbatekoak egonkorrak izan dira urteotan guztietan. Funts horiek eskualde jakin batzuetara eta herrialdeko talde jakin batzuei bideraturik daude.

Funts guztien batuketak adierazitako joera orokorra islatu dugu orain arte, baina nabarmena da Eusko Jaurlaritzaren laguntzek eragin handia dutela zerrenda hori zehazterakoan. Udalek bideratutako funtsei erreparatuz gero, lehentasunak zertxobait aldatu egiten direla jabetuko gara; hala, esaterako, Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoa ageri da aurreneko leku horietan.

7. Taula. EAEko laguntza jasotzen duten aurreneko hamar herrialdeak (2004-2011)

Herrialdea	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	Guztira orokorra
Peru	4.108.550	3.610.442	2.855.499	8.649.850	8.180.227	8.397.805	8.588.512	10.054.133	54.445.019
Guatemala	3.268.001	4.402.731	4.362.615	4.198.725	5.067.724	3.369.181	4.490.304	6.620.195	35.779.477
El Salvador	2.987.336	3.038.983	4.403.592	4.018.724	4.486.642	6.064.764	4.153.290	3.242.230	32.395.560
Kuba	2.219.963	2.739.871	2.838.399	2.395.678	4.895.867	3.468.015	3.053.731	1.393.360	23.004.884
Bolivia	1.525.700	2.151.439	2.574.857	2.417.560	2.938.488	3.746.529	3.443.213	3.219.328	22.017.114
Nikaragua	2.956.167	2.828.498	2.484.173	3.313.745	2.890.661	2.046.945	3.102.336	1.931.058	21.553.583
Ekuador	1.656.398	2.008.370	1.866.251	2.278.376	2.561.906	3.361.013	2.666.887	3.175.946	19.575.148
Kongoko Erre. Demokratikoa	1.114.575	925.568	864.564	2.642.436	1.402.633	3.644.106	2.292.708	4.372.953	17.259.543
Kolonia	991.349	1.490.095	1.618.326	1.805.822	1.955.677	3.466.510	2.714.574	2.717.096	16.759.449
Mexiko	1.229.393	1.899.326	2.179.339	2.283.976	1.977.584	1.082.654	2.449.485	1.726.933	14.828.689
Guztira orokorra	22.057.434	25.095.323	26.047.615	34.004.892	36.357.409	38.647.522	36.955.039	38.453.232	257.618.466

Iturria: Geuk egina, ALBOANEk bildutako datu ofizialak oinarri hartuta.

Kontinentei eta proiektu motari buruzko informazioa gurutzatuz gero, ohartuko gara, berriro ere, proiektuei loturiko ekintza gehienak Latinoamerikan kokatuak daudela eta, ondoren, alde nabarmenarekin, Afrikan. Ekintza puntualen kasuan, nahiz eta Latinoamerikak jaso funts gehien, Afrikak leku nabarmenagoa du, proiektuekin eta banaketa orokorrekin alderatuz gero. Programetan, begien bistakoa da Latinoamerikari eman zaiola lehentasuna, nahiz eta Afrikara bideratutako programak ere izan badiren. Azkenik, generoaren ikuspegia txertatzeko ekintza edo aholkularitza teknikoei dagokienez, deigarria da Latinoamerikan gauzatutako proiektuen garrantzia. Orobat, Asian ere zenbait proiektu aurkeztu dira arlo horretan.

Laguntza humanitarioari dagokionez, grafikoek adierazten dute banaketan alde handiagoak daudela proiektuetan baino, eta Afrikak leku nabarmenagoa hartzen duela. Halaber, ikus daiteke Latinoamerikan ekintza gehiago daudela, eta Asiak proportzionalki leku nabarmenagoa hartzen duela garapenerako proiektu eta programetan baino. Bestalde, laguntza humanitarioko ardatz diren estrategiak ia guztiak Afrikan ari dira gauzatzen, eta bakarren bat Asian. Estrategia horiek ekintza antolatuagoa eta eragin handiagokoa eskatzen dute.

Hitzarmenei dagokienez, berriro gogoratuko dugu ez direla hitzarmen guztiak adierazten ez eta erakunde guztienak ere, baina Udalek bultzatutako lankidetzazuzenaren zati baten isla bai, badirela, Udalak baitira alderdi horri buruz informazio gehien ematen dutenak. Alde horretatik, azken urteotako joerak erakusten du Afrikara bideratutako lankidetzak garrantzi handiagoa hartuko duela eta Latinoamerikan lagundutako hitzarmenekiko banaketa orekatu egingo dela.

3.5. LEHENTASUNEZKO SEKTOREAK

Garapenerako lankidetzaren xedea da lankidetzaz molde hori gauzatzen den herrialdeen garapena sustatzea, eta horretarako bidea da garapen-prozesu horiek sortzeko funtsezkoak jotzen diren esparru eta sektoreetan ekarpenak egitea. Plan Zuzentzaileek lehentasunezko jotzen dituzte sektore horietako batzuk baina, arestian esan dugunez, ekintza gutxi egin da horien jarraipena eta ebaluazioa egiteko. Horri gehitu behar zaio, lankidetzaz deszentralizatuaren eragile nagusiak garapeneko erakundeak izanik, zaila dela berez erakunde publikoen eta gizarte-erakundeen planak elkarren osagarri izatea.


Garapenerako Laguntza Batzordearen (GLB) kodeen arabera proiektua nola kodetu dugun aintzat harturik, proiektuaren titulu hori hartu da oinarritzat, kasurik

gehienetan. Uste dugu informazio horrek lankidetzaren gutxi gorabeherako argazki bat baino ez digula eskaintzen, baina garrantzitsua iruditzen zaigu aztertzea eta informazio mota hori garrantzitsua dela erakustea, politiken jarraipena eta ebaluazioa egin ahal izateko.

3. grafikoan ikus daitekeenez, proiektuek hainbat sektoretan eragiten eta jarduten dute, baina batez ere gobernuan eta gizarte zibilean (lurralde-garapeneko, deszentralizazioko eta oinarritzko erakundeen partaidetza politikorako ekintzak sartzen dira hor), baita hezkuntzan ere. Garrantzitsua da adieraztea bi horiek lehentasunezko esparruak zirela, eta lankidetza deszentralizatuaren balio espeziifikotzat jotzen zirela. Garrantziaren arabera, emakumea eta garapenari eta landa-inguruneen garapenari loturiko ekintzak dira hurrengoak. Aipatu beharrekoa da emakumea eta garapena edota landa-inguruneen garapena ardatz duten zenbait ekintza oso loturik egon daitezkeela aurrez aipatutako sektoreekin; aldea da azken horietan protagonista behinena talde zehatz bat dela, emakumeena, edo lurralde jakin bat, landa-ingurunea.

Sektore horien ondoren, larrialdiko laguntzak eta uraren eta saneamenduaren gaian emandako laguntzak daude. Udalen edo Euskal Fondoaren bidez gauzatu-tako udal lankidetzaren bereizgarri zehatzetako bat dira lan-esparru horiek.


3. Grafikoa. Onartutako proiektuen banaketa sektorearen arabera



Iturria: Geuk egina, ALBOANek bildutako datu ofizialak oinarri hartuta.

Sektore bakoitzean zertxobait sakonduz gero, ohartuko gara euskal lankidetzaren publikoan, oro har gartuta, lehentasun handieneko sektorea gobernuari eta gizarte zibilarri emandako laguntza dela. Erakunde guztiek ia urtero bideratzen dituzte funtsak sektore horietara, Arabako Foru Aldundiak izan ezik. Nolanahi dela ere, ehunekotan, garrantzi gehien duen sektoreetako bat da eta berdin mantendu da urteotan guztietan.


4. Grafikoa. Gobernuari eta gizarte zibilarri laguntzeko proiektuak (2004-2011)



Iturria: Geuk egina, ALBOANek bildutako datu ofizialak oinarri hartuta.

Hezkuntzari dagokionez, datuek erakusten dute zenbait erakundek, hala nola Arabako eta Gipuzkoako Foru Aldundiek eta Donostiako Udalak, ez dutela sektore horretako proiekturik lagundu azken urteotan. Bestalde, Eusko Jaurlaritzak, Gasteizko Udalak eta Euskal Fondoak garrantzi handiko sektoretzat hartzen dute, eta hala hartu izan dute, gainera, aztertutako urte gehien-gehienetan.


5. Grafikoa. Hezkuntzaren sektorea laguntzeko proiektuak (2004-2011)



Iturria: Geuk egina, ALBOANek bildutako datu ofizialak oinarri hartuta.


Gainerako sektoreei dagokionez, atxikitako grafikoetan ikus daiteke erakundeek gero eta gehiago laguntzen dituztela eta bideratzen dituztela funtsak emakumeen talde espezifikoarekin eta haien ahalduntzearekin zerikusia duten proiektuetara. Nabarmena da hori bereziki Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren kasuetan. Bestalde, landa-ingurumenaren garapen alternatiboaren alde ere egi-ten dute bi erakundeok, nahiz eta azken urteotako joeraren arabera sektore ho-rrerata bideratutako laguntzak urritu egin diren zertxobait.

6. Grafikoa. Emakumearen eta garapenaren sektorea laguntzeko proiektuak (2004-2011)



Iturria: Geuk egina, ALBOANek bildutako datu ofizialak oinarri hartuta.


7. Grafikoa. Landa-garapenaren eta garapen-alternatiboaren sektorea laguntzeko proiektuak (2004-2011)



Iturria: Geuk egina, ALBOANek bildutako datu ofizialak oinarri hartuta.

Aurrez esan dugu badela urarekin eta saneamenduarekin lotura duen sektore bat; hain zuzen, harrerako herrialdeetako tokiko politikei loturik egon da sektore hori. Uraren eta saneamenduaren inguruko lan hori Eusko Jaurlaritzak, Euskal Fondoak eta Gasteizko Udalak babestutako estrategia izan da. Arestian esan dugu udal erakundeek lotura handia dutela estrategia horrekin, eta, lotura ez ezik, gaitasunak, sentiberatasuna eta jakintza ere badituzte esparru horretan.

8. Grafikoa. Uraren eta saneamenduaren sektorea laguntzeko proiektuak (2004-2011)




Iturria: Geuk egina, ALBOANek bildutako datu ofizialak oinarri hartuta.

Oinarrizko gizarte-zerbitzuen eskaintza eta elikadura dira garapen iraunkorrerako beste esparru estrategiko batzuk. Nekazaritzaren eta proposamen alternatiboen bidez bideratutako nekazaritza-garapenaren aldeko apustua eta laguntza izan dira erakunde gehienek bultzatutako proiektuen beste ezaugarrietako bat, batez ere Eusko Jaurlaritzak bultzatutako proiektuena.

Gizarte-zerbitzuen artean, hezkuntza eta osasuna dira behinenak. Hezkuntzari buruz jardun dugu arestian. Osasuna, berriz, ez da erakunde bakar baten esparru espezializatua izan; aitzitik, hainbat erakundeek finantzatutako proiektu askoren osagai izan da. Nabarmentzekoa da Euskal Fondoak ia ez diela lehentasunik ematen gizarte-zerbitzuekin lotura duten proiektuei. Sexu-osasuna eta ugalketarekin loturikoa ere ez da lehentasunezko esparrua erakundeentzat. Hala ere, hezkuntza osagaiak edota emakumea eta garapena ardatz dituzten proiektuek txertatuta

eduki dezakete esparru hori egiten diren jardueren artean, batez ere prebentzio eta sentsibilizazio arloan egiten diren jardueretan.

9. Grafikoa. Oinarrizko osasunaren sektorea laguntzeko proiektuak (2004-2011)




Iturria: Geuk egina, ALBOANek bildutako datu ofizialak oinarri hartuta.

Azkenik, laguntza humanitarioaren atala bitan zatitu dugu¹⁴: lehenean, soilik elikadura arloko laguntzarekin zerikusia duten egitasmoak jaso ditugu eta, bigarrenean, esku-hartze humanitarioko gainerako jardunak: larrialdiko eta berreraikitze eta birgaitzeko ekimenak. Esparru horietan, zaila da jarraitutasunik izatea; izan ere, testuinguru eta eskakizun oso zehatzen ondorioz sortutako esku-hartzeak dira. Hala ere, aipatzekoa da Euskal Fondoak ez duela soilik laguntza humanitariokoak diren ekintzetan modu jarraituan parte hartzen. Bestalde, erakunde guztiek lagundu dute larrialdiko eta kaltetutako eremuak berreraikitze ekimenetan (batzuetan elikadura aldetiko laguntza ere eman izan da horietan). Bistan denez, laguntza humanitarioko ekimenek ehuneko txikia hartzen dute gauzatu-tako ekintzetan eta bideratutako zenbatekoetan, baina iritzi publikoa mugiarazteko eta sentsibilizatzeko gaitasun handia dute. Larrialdiko ekintzetara bideratu-tako erantzun azkar eta ez hain azkarren eta zenbateko handiago edo txikiagoen gaineko azalpenak ematea erronka bat da elkarte eta erakundeentzat, eta, horrez

¹⁴ Bilduma honetako 6. koadernoak laguntza humanitarioaren gaia jorratzen du bereziki, eta eskura dago horri buruz gehiago jakin nahi dutenentzat.


gain, sentsibilizazio lan handia dago egiteko herritarrek eta politikariak, oro har, epe ertain eta luzerako prozesuen alde apustu egin behar dela ohar daitezen.

10. Grafikoa. Elikadura aldetiko laguntzaren sektorea babesteko proiektuak (2004-2011)




Iturria: Geuk egina, ALBOANek bildutako datu ofizialak oinarri hartuta.

11. Grafikoa. Larrialdietan eta berreraikitze – eta birgaitze-lanetan laguntzeko proiektuak (2004-2011)



Iturria: Geuk egina, ALBOANek bildutako datu ofizialak oinarri hartuta.

12. Grafikoa. Estatuko eta nazioarteko gizarte-erakundeei laguntzeko proiektuak (2004-2011)



Iturria: Geuk egina, ALBOANek bildutako datu ofizialak oinarri hartuta.

3.6. ZEHAR-LERROAK: GENEROA ETA IRAUNKORTASUNA

Unceta et ál. (2012) egileekin bat etorritz, zehar-lerroak garaiz samar hasi ziren kontuan hartzen EAEko erakundeen dekretuetan eta deialdietan. Emakumeen elkarteek edota feministek sustatutako estrategia da zehar-lerroak aintzat hartzearena; elkarre horien helburua da gauzatzen diren lege, politika eta programa guztiek emakumeen eta gizonen gain duten eragina aztertzea. Beijingen 1995ean zinen Emakumearen IV. Biltzarrean hartu zen aintzat proposamen hori.

Gerora, beste gai batzuk gehitu dira zehar-lerroen esparruan, funtsean generoa, ingurumen ikuspegia eta eskubideen ikuspegia, zenbait erakunde publikoren kasuan.

Zehar-lerroen aldeko apustu hori erakundeen planteamendu eta politika askotan sortu zen hasieran, eta proiektuei baremoa ezartzeko (batzuetan kanpoan uzteko) irizpide jakinetan zehaztu da gerora. Azkenik, hainbat tresna zehatz sortu dira soil-soilik genero-ikuspegia aintzat hartzeko¹⁵.

¹⁵ Unceta et ál. (2012) egileen liburuan jasotzen da gai horri buruzko ibilbide zehatza. 52-64.


Genero-ikuspegia aintzat hartzeko apustu irmo hori hor dagoen arren eta erakunde askok konpromiso zehatzak izan eta informazio xehakaturik eskatzen duten arren, informazio hori ez da oraindik herritar guztiengana iritsi. Orobat, zeharlerro horiek proposamenetan txertatu direla eta lortu nahi diren helburuetan eragina izaten ari direla egiaztatzeko analisirik eta ebaluaziorik ere ez dugu. Zeharlerro horiek nola txertatzen ari diren eta errealtate jakinetan zer eragin izaten ari diren jakiteko informazio gehiago eta analisi argiagoa eskatzen dute herritarrek. Nolanahi dela ere, aholkularitza-tresna zehatzen bidez bai maila instituzionalean bai proiektuen esparruan genero-ikuspegia aintzat hartzeko egiten ari diren ekimenei buruz badugu informazioa edo gehiago dakigu ekimen horiei buruz. Aldiz, ingurumen-ikuspegiaren eta nazioarteko lankidetzaren zeharlerroei buruz ez dakigu hainbeste.

Gure azterketarako, ekimen guztietan zeharlerroak (gutxienez ingurumen-ikuspegia eta generoarena) aintzat hartzen direla ontzat emanik, eta eskura dugun informazioan oinarrituta (proiektuen titulua, funtsean), egitasmo horietan talde jakin batzuk aipatzen ote ziren identifikatu dugu (indigenak eta emakumeak), edo ingurumen-ikuspegiarekin loturiko osagaiak (ingurumena, iraunkortasuna, ekologia) edo genero-ikuspegiarekin loturikoak (ahalduntzea, emakumeen eskubiak, parte-hartze politikoa eta ekonomikoa).

Analisi mugatua da eta horren xedea da, lehenik eta behin, agerian uztea gai horiei buruz informaziorik ez dagoela ia, eta bigarrenik, ohartaraztea informazio hori izatea garrantzitsua dela estrategiak hobetzeko edo berriak sortzeko.

Alde horretatik, euskal erakundeek proiektuetan lehentasuna izan duten talde jakinei buruzko zenbait elementu nabarmendu ditugu jarraian. grafikoak erakusten duenez, talde indigenei ez zaie gehiegizko lehentasunik eman, eskura dagoen informazioa eta proiektuaren edukia aintzat hartuta. Finantzatutako proiektuen 9 da, batez beste, kolektibo horiei emandako laguntza.


13. Grafikoa. Talde indigenei bideratutako ekimenen kopurua



Iturria: Geuk egina, ALBOANek bildutako datu ofizialak oinarri hartuta.

Emakumeen kasuan antzerako azterketa egin dugu, gogoan hartuta emakumeak edo tituluaren talde horren aipamena duten proiektuak aukeratu ditugula; hala, batez beste, proiektuen 23tan hartu da aintzat zehar-lerro hori. Batez bestekoa 30era igotzen da Bilboko Udalaren kasuan.


14. Grafikoa. Emakumeei bideratutako ekimenen kopurua



Iturria: Geuk egina, ALBOANek bildutako datu ofizialak oinarri hartuta.

Bestalde, euskal erakunde publikoen zeharkako bi estrategiari zehaztasun handiagoz erreparatuz gero, bi informazio desberdin ageri direla ohartuko gara. Batetik, Garapenerako Laguntza Batzordearen (GLB) kodeen arabera emakumea eta garapena kategorian kodetutako proiektuak daude. Emakumeen parte-hartze politikoa, ekonomikoa eta antolaketa sustatzen duten proiektuak dira. Datuek erakusten dute erakunde bakar batek ere ez duela jokabide argirik, baina Bizkaiko Foru Aldundiak gainerakoek baino indar handiagoa egiten duela emakumeen alde.


15. Grafikoa. Emakumea eta garapena kategorian kodetutako proiektuak



Iturria: Geuk egina, ALBOANek bildutako datu ofizialak oinarri hartuta.

Bestetik, berriz, emakumeen ahalduntzea goiburupean definitu ditugun jarduerak daude: tituluaren ahalduntzeari buruzko aipamenen bat duten ekimenak. Kasu honetan, berretsi beharrean gara Bizkaiko Foru Aldundiak eta gizarte-erakundeek zehar-lerro horrekiko agertutako konpromisoa; izan ere, ekimenen 43an hartu dute kontuan emakumeen ahalduntzea. Oro har, erakunde guztiek agertu dute konpromiso hori, batez beste ekimenen 24an. Bizkaiko Aldundiaz gain, Bilboko Udalak ekimenen 33an eta Donostiakoak 26an hartu dute kontuan emakumeen ahalduntzearen zehar-lerroa.


16. Grafikoa. Emakumeak ahalduzko xedearekin finantzatutako ekimenen kopurua



Iturria: Geuk egina, ALBOANek bildutako datu ofizialak oinarri hartuta.

Generoaren zehar-lerroari dagokionez, mugimendu feministak eta GGKE-etan feminismoarekin konpromiso handia duten emakumeek presioa egiteko eta eragiteko lan handia egin dute, baina ez da berdin gertatu ingurumen-iraunkortasunaren ikuspegiarekin. Ez gizarte-erakundeek ez erakundeek ez dute gaitasun eta tresna nahikorik garatu zehar-lerro horri modu eraginkorrean bide emateko. Lankidetzaren erronke-tako bat da dudarik gabe; oraindik ere lantzeko dagoen gai bat. Ondoko grafikoa da horren adierazle. Bakanak dira gai hori berariaz aipatzen duten proiektuen tituluak.

17. Grafikoa. Finantzatutako ekimenen artean ingurumen-iraunkortasuneko ikuspegia dutenak




Iturria: Geuk egina, ALBOANek bildutako datu ofizialak oinarri hartuta.

3.7. PROIEKTUEN JARRAIPENA

Garapenari buruzko diskurtsoan gehiago hitz egiten da prozesuei buruz proiektuei buruz baino. Erakunde publikoen lankidetzak politikak bat datoz diskurtso horiekin, baina funts eta ekimen gehien bideratzen dituen tresna urte bat edo biko iraupena duen proiektua da. Oraindik orain, epe luzeagoko lana egiteko aukera ematen duten programak garatu dituzte EAEko erakundeek, batez beste 3 urteko iraupena duten egitasmoak.


Nolanahi dela ere, baliatutako tresna bat edo bestea izan, erakunde batzuek uztartutako proiektuak josten dituzten prozesuen alde edo proiektuei jarraipena ematen dieten prozesuen alde egin dute apustu. Hori dela eta, interesgarria iruditzen zaigu aztertzea zenbat ekimen ziren aurreko batzuen jarraipena. Hori dela eta, jarraipenezko proiektutzat hartu ditugu tituluan bigarren fasea edo hurrengoren bat adierazten zutenak, baita titulu bera izanik bata bestearen atzetik hainbat urtetan egindakoak.

Batez beste proiektuen 16 da aurrekoen jarraipenezkoa, baina aztertutako azken urteotan handitu egin da ehuneko hori, azken lau urteotan 19 izateraino.




Iturria: Geuk egina, ALBOANek bildutako datu ofizialak oinarri hartuta.

Erakunde finantzatzaileak zehatzago aztertuz gero, deigarria da Euskal Fondoaren kasua, erakunde horrek proiektuei jarraitutasuna ematearen alde egiten duen apustua adierazten baitute datuek. Aztertutako urteetatik lautan, jarraitu penezkoak izan diren proiektuak gehiago izan dira berriak baino, 19. grafikoak erakusten duenez. Nabarmendu beharrekoa da Euskal Fondoa udal lankidetzako erakundea dela eta ibilbide ertain eta luzeko harremanak dituela tokiko beste erakunde batzuekin, batez ere Erdialdeko Amerikakoekin (bereziki El Salvadorren eta Nikaraguan) eta Saharako Errepublika Arabiar Demokratikokoekin.




Iturria: Geuk egina, ALBOANek bildutako datu ofizialak oinarri hartuta.

Gasteizko Udalak ere irizpide berari jarraitzen dio eta, gainera, azken urteotan tresna espezifiko bat landu du proiektuei epe ertainean jarraipena emateko: uztartutako proiektuen deialdia, hain zuzen. Deialdi hori gorabehera, Gasteizko Udalak apustu irmoa egiten du prozesuei jarraipena emateko, are gehiago krisi bete-betean eta funtsak murrizten ari diren garaiotan. Hala, aztertutako azken bi urteetan, 2010ean eta 2011n, Udalak lehentasuna eman dio proiektuek jarraitutasuna izateari, ekimen berriak sortzeari edo berrikuntzari baino. Hitzarmenen kasuan, aurrekoei jarraipena ematea eta berriak sortzea paretsu banatzen dira. Proiektuen kasuan, berriz, onartutako proiektuen hirutik bi, gutxi gorabehera, jarraipenezkoak dira.



Iturria: Geuk egina, ALBOANek bildutako datu ofizialak oinarri hartuta.


21. Grafikoa. Proiektuen jarraitutasuna, instrumentuaren arabera, Gasteizko Udalean



Iturria: Geuk egina, ALBOANek bildutako datu ofizialak oinarri hartuta.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzaren kasuan, jarraipena izan duten proiektuen ratioa apalagoa da, 10ekoa. Hala ere, ez dago jokabide argirik alde horretatik; izan ere, 2005ean eta 2008an nabarmen handiagoa izan zen ehuneko hori eta gerora jaitsi egin da berriro.

22. Grafikoa. Proiektuen jarraitutasuna Eusko Jaurlaritzan (2004-2011)



Iturria: Geuk egina, ALBOANek bildutako datu ofizialak oinarri hartuta.

4. Etorkizunari begirako erronkak krisian den lankidetzarako

25 urteko ibilbidearen eta 5 urteko krisialdi sakonaren ostean, euskal lankidetzak oraindik ere aurre egin behar dio garapenerako nazioarteko lankidetzaren alorreko politikak, proposamenak eta ekimenak eraginkorrak eta kalitatezkoak izateko erronkari. Gure ustez oraindik, ere ezinbestekoa da eraginkortasunari eta kalitateari buruzko eztabaidan parte hartzea, eta sakonkiago ulertzea horiek zer dakarten euskal lankidetzarentzat, horren neurria eta ezaugarriak kontuan hartuta. Halaber, iruditzen zaigu eztabaida horrek estuki lotuta egon behar duela gaur egun Post-2015 Agendaren esparruan gauzatzen ari direnekin; esparru horretan, lehenetsutako garrantzia ematen zaie desberdintasunen kontrako borrokari eta garapen-ereduei buruzko eztabaidari, eta bereziki garrantzitsua da tokiko agintaritzek aldaketa-prozesu horretan zer paper jokatzaren galdetzea geure buruari.

Beste alde batetik, garapenean eta lankidetzan espezializatutako literaturako aurkikuntza berrienek¹⁶ adierazten duten eran, lehenengo erronka da eskuragarri ditugun datuei zer galdera zehatz egin diezazkiekegun argitzea, identifikatzea eta zehaztea (Waddington et al., 2012: 361), politiken ebaluazioaren eta aldaketa sozialaren teoriaren esparruko beste diziplina eta teknika espezializatu batzuekin elkarriketa sortuz. Euskal lankidetzaren eraginkortasunari buruz galde egitea orokorrean, munduko edozein tokiri, edozein sektoreri dagokionean, proposamen orokorregia da ikuspegi metodologiko batetik.

¹⁶ *Journal of Development Effectiveness* izan daitekeen moduan.

Horretarako, koaderno honetan zehar adierazi dugun eran, funtsezko baldintza da kalitatezko datuak eskuratu ahal izatea, iraganean egin izan denaren eta horrek sortu ahal izan dituen eraginaren (edo emaitzen) atzera begirako irakurketa bat egiteko aukera emango digutenak. Koaderno hau egiteko orduan askotan esan dugun eran, oztopo handiak izan ditugu nolabaiteko homogeneotasuna zuten eta azterketan aurrera egiteko adinako maila zuten datuak eskuratzeko. Ezinbestekoa da, adibidez, modu bateratuan aurrera egitea proiektuen kodifikazioetan, bai eta aurrekontu-datuaren aurkezpenean ere, batez ere erakunde publikoei dagokienean. Zentzu horretan, iruditzen zaigu beharrezkoa dela dauden kodifikazioak erabiltzea (adibidez, CADenak), baina, agian, gure beharretara hobeki egokitzen diren beste batzuekin osatu behar direla (esaterako, zeharkakoak atzematuko), bai eta aurrekontu-datuak faseen arabera aurkeztu ere (aurrekontua eginda, konprometituta, gauzatuta).

Lankidetzarako politika publikoei dagokienean, funtsezko erronka da herritarrek eta klase politikoak horrelako politikekiko duten konpromisoa eta lotura bermatzea, hori gako izango baita haien jarraitutasuna ziurtatzeko, batez ere aurrerapauso garbiak egin diren alderdietan (zeharkako batzuk sartzea, esaterako). Lehen mailako erronka da, oraindik ere, politikak eta ekintzak koordinatzeko apustua, bai erakundeen artean, bai eta haien barnean ere; horretarako, gomendatzen dugu balioa ematea koordinazio-alorreko esperientzia positiboak (hala nola, Arabako Larrialdietarako Funtza edo Euskalfondoa), eta aurrerapausoak ematea guztiok batera koordinazio-esparruko gutxieneko atalase batzuetan, gardentasun-sistemen edo kontuak ematearen alorrean esaterako.

Beste alde batetik, eta euskal administrazio publikoek hasitako lankidetzazuzeneko ekintzei dagokienean, garrantzitsua iruditzen zaigu horiek erakunde publikoen lankidetzarako politika publikoan sartzea osoki; horretarako, aurrerapauso garbiagoak eta gardenagoak eman behar ditugu datuen eta ekimenen aurkezpenean eta ezagutzan, eta eraginkortasunari eta kalitateari buruzko eztabaida beste sail eta agentzia batzuetara zabaldu (beste batzuen artean, URA, IHOBE, Emakunde). Ildo beretik, irizten dugu politiken koherentziaren gai garrantzitsua aztertu behar dela, hau da, politiken arteko loturarena (adibidez, hezkuntzaren, industriaren, zergen eta abarren alorretako politiken artekoa); hori lortzeko, pixkanaka egin dezakegu aurrera, datuak argitaratuz eta dauden ekimenak eta proposamenak (adibidez, erosketa publiko etikoa) agerian jarritz hasteko.

Lankidetzazuzeneko kalitateari dagokionez, ezinbestekoa iruditzen zaigu deialdiak, prozeduren eta prozesuen digitalizazioa, auditoretzak eta generoarenaren

moduko eta horren osagarri diren zeharkakoak sartzeko mekanismoen eta tresnen (aholkularitza teknikoak, prestakuntza, erakunde-ikuspegia) garapena bateratzeko pausoak ematea.

Azkenik, GGKE-ek eta lankidetzako beste eragile batzuek gauzatutako lankidetzari dagokionean, uste dugu nahitaezkoa dela herri-administrazioen (Iparraldekoak eta Hegoaldekoak) eta erakundeen (Iparraldekoak eta Hegoaldekoak) arteko elkartasun-harremanetan, konfiantzan eta elkar onartzean oinarritutako eredu baterantz joatea; horretarako, behar-beharrezkoa iruditzen zaigu berrikuntza sustatzea, elkarrizketa bultzatuz eta GGKE-en eta beste eragile batzuen ibilbidea onartuz, “laguntzaren katearen” eskema gaitzitzeko ahaleginak egin eta gehiegizko burokratizazioa saihesten dugun heinean.

5. Bibliografia

ALBOAN (González et al.) *Zenbakiez haratago: La cooperación al desarrollo vasca a debate*. Ikerketak, 3. zk. **ALBOAN**: Bilbo.

Iborra, J., Martínez, P., Martínez, I. (2013). *Diagnóstico sobre las políticas de cooperación de los gobiernos autonómicos en la cooperación descentralizada a debate – La eficacia de la ayuda el post-2015*. Bartzelona: CIDOB, Art-PNUD, Milurtekoko Kanpaina.

Martínez I. (2011). *Por una cooperación descentralizada de calidad. Reflexiones para avanzar a una mayor eficacia*. http://www.iidl.es/ficheros/documentos/Por_una_Coop_descentralizada_definitivo.pdf

Rodríguez, N. (2013) *Análisis de la cooperación pública vasca 2008-2010. Una mirada a la cooperación descentralizada*. Gasteiz: Coordinadora de ONGD de Euskadi/Euskadiko GGKE-en Koordinakundea.

Unceta K., Amiano, I. Gutiérrez, J., Kabaiuen, I., Martínez, M.J., Malagón, E., Sabalza, M., Villena U., Zabalza, I. (2012). *25 Años de Cooperación al Desarrollo en Euskadi: La política de Instituciones Públicas y el Sistema Vasco de Cooperación*. Bilbo: HEGOA.

Waddington, White, Snilstveit, Garcia Hombrados, Vojtkova, Davies, Bhavsar, Eysers, Koehlmoos, Petticrew, Valentine & Tugwell. (2012). How to do a good systematic review of effects in international development: a tool kit. *Journal of Development Effectiveness*, 4:3, 359-387.

